

## Euskadiko liburutegien legeaz

### Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia

2004-08-00

Sinatzaileok, Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiko kideok, gure lanbidea dela-eta irakurri ahal izan dugu Euskadiko Liburutegien Legearen aurreproiektua izeneko dokumentua. Eta berehala kezka eta egonezina nagusitu dira gure artean. Izan ere, lege-aurreproiektu horretan irakurri duguna zinez larria da euskal kulturaren ikuspuntutik.

Hona gure kezkaren mamia:

#### 1.- Euskal Herriko ondare bibliografikoaz

«Euskal Herria Europako herri guztien artean berezko nortasuna duen herria da, historia, gizarte eta kultura aparteko ondare baten gordailu, eta gaur egun bi estatutan kokatutako hiru eremu juridiko-politiko ezberdinetan giltzatutako zazpi lurraldetan du bere leku geografikoa».

Goiko definizioa ez da gurea, Juan Jose Ibarretxe lehendakariarena baizik, eta ez da pasaeran eta arduragabe eginiko adierazpena, bere gobernuaren proiektu politikoa biltzen duen dokumentu nagusiaren, Ibarretxe plana deitutakoaren hasiera baizik. Definizio hori oinarri hartuta, argi dago zein den Euskal Herriko Ondare Bibliografikoa, zeinaren kontserbazioa eta defentsa atzerapen gehiagorik gabe biblioteken lege baten bidez ziurtatu behar den. Aurkeztutako biblioteken lege-aurreproiektuak konplexurik gabe jaso beharko luke berari dagokion eginbeharra.

Bestalde, gaia EAEko esparru autonomikora ekarriz, azpimarratu nahi dugu, lege-aurreproiektu honen arabera sortuko litzatekeen Euskadiko Bibliotekaren lidergo falta nabarmena sektorean, ezinbestekoak diren hainbat antolaketa eta tresna bibliotekario balizko borondate eta elkarlanaren baitan uzten baititu.

#### 2.- Euskararen tratamenduaz

«Euskadiko Liburutegi Sistema, hortaz, lankidetzaren bitartez liburutegiz-erbitzuak emateko gai diren erakundeen multzoa da lege honen ikuspegitik. Hauek dira sistemaren oinarriak: informazio-politika, nazioarteko lankidetzaren planteamendu [i.e. plangintza] bibliotekario bat (administrazioen arteko koordinazioa) eta Euskadiko Liburutegiaren izatea bera».

Hala dio aurreproiektuak, eta zinez oso larria iruditzen zaigu euskal kulturarentzat horrenbesteko garrantzia duen gai batean euskararen normalizazioa espresuki ez aipatzea. Are larriagoa, kontuan hartzen badugu biblioteka sektoreak euskararen aldetik ia erabateko abandonoa sufritu duela. Orain arte Eusko Jaurlaritzak ez du egin inolako ahalegin sistematikorik biblioteken alorrean euskararen normalizazioa lortzeko. Horrek esan nahi du lege honetan argi eta garbi aitortu behar dela galdutako denbora berreskuratu behar dela.

Euskararen normalizazioa gutxien-gutxienik Sistemaren oinarri gisa agertu beharko litzateke. Lege honetan, ordea, euskararen marjinazioa berresten da, zeren nekez lortuko da helburu gisa aipatu ere egiten ez dena.

#### 3.-Ondorioak

Norbaitek pentsa dezake egin ditugun oharrak batez ere ideologikoak direla eta, aldiz, ez dugula eragozpenik maila teknikoan. Ez da horrela. Maila teknikoan ere munta handiko oharrak egingo genituzkeen, horretarako aukera eta astia eman izan baligute. Honen haritik, bat



egiten dugu ALDEEko lankideek egindako salaketarekin, hots, «kolektibo profesionalaren partaidetza aktiborik gabe, eta ezagutzarik gabe ere, idatzi izanagatik».

Ondorioz, guzti honengatik, ozenki eskatu nahi dugu aurreproiektu honen tramitazioa bertan behera uztea.